

Prentsa oharra

Nota de prensa



Illunbeko erabilera anitzeko pabiloi berriak moldakortasunaren aldeko apustua egiten du, kirol- eta kultura-jardueraren polo handia izateko.

Bukatu da ekipamendu berriaren proiektua aukeratzeko nazioarteko lehiaketa, eta "Txalaparta" izeneko proposamena hautatu du epaimahaiak, IDOMek aurkeztutako proiektua.

Illunbeko erabilera anitzeko pabiloi berria diseinatzeko eratu zen nazioarteko lehiaketaren epaimahaiak IDOM ingeniari eta arkitektura estudioak aurkeztutako "Txalaparta" proposamenari ematea erabaki du lehenengo saria. Erabakia hartzeko prozesuan, asko baloratu du proposamena zer-nola egokitzen zen programa funtzionalaren eskakizunetara, arkitektura-kalitatara, ingurumen-ezaugarrietara eta proposamenen bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta funtzionalera.

Hala, funtsezkoa izan da proposamena proiektuaren premia funtzional eta teknikoetara oso ondo egokitzea. Alde batetik, kontuan hartu da eraikina hirian ondo integratzea. Alde horretatik, proposamen arkitektonikoak bi ataletan banatzen du eraikina, konfigurazio bolumetrikoko bakarrean integratuta. Horrela, murriztu egiten du masa sentrazioa eta hobeto egiten du bat eraikinak hiriarekin. Era berean, ez du lursailaren okupazio handirik planteatzen, eta gune libreak sortzeko eta eraikina inguru hurbilarekin hobeto erlazionatzeko modua ematen du.

Bestetik, aurreikusita dauden erabilerak (kirol-lehiaketak, ikuskizunak, azokak, kongresuak eta abar) modu malgu eta independentean bateratzeko gaitasuna ere aintzakotzat hartu da. Ibilbideen eta sarbideen kalitatea, espazioen moldakortasuna eta konponbide logistikoaren eraginkortasuna nabarmendu dira alderdi horretatik.

Azken batean, epaimahaiak puntuaziorik handiena eman dio proposamen horri iritzi diolako hori dela konponbiderik orekatuena eta ikuspegi funtzional, espazial eta operatibo aldetik ondoen ebatzitako proposamena.

Proiektu irabazlearen aurkezpenean Jon Insausti alkateak, Ane Oyarbide Tokiko Ekonomia eta Enpleguko zinegotziak eta David Feijoo Donostia Kiroleko zuzendariak parte hartu dute. Insaustik azpimarratu duenez, "pabiloi hau puzzle handi baten pieza bat da, eta aro berri baterantz proiektatzen gaitu. Illunbek modu integralean lotzen du Anoetako kirol-hiria Miramongo berrikuntza ingurunearekin, eta gune berri bat eratzen du; kirola, kultura, ikuskizuna eta

Prentsa oharra

Nota de prensa



berrikuntzari lotutako jarduera ekonomikoa uztartzen dituen gunea. Ate handi bat, finean, etorkizuneko hiria berrikuntzako eta ezagutzako nodo gisa sartzeko. Garena eta izan nahi duguna konektatzen ditu, eta Donostia oparoagoa proiektatzen du, etorkizunerako prestatua, bere izateari uko egin gabe".

Bestalde, Oyarbidek adierazi du Illunberentzako proiektu berri honek "egungo ekipamendu gabeziak zuzentzeko eta Donostiako eta Gipuzkoako kirol-kluben eskaerei erantzuteko moduko erabilera anitzeko gunee batez hornitzeko beharrari erantzuten diola. Eta, era berean, Donostiako kultura-eskaintza handitu eta kontzertu eta ikuskizun handien zirkuituan jarriko du berriro ere gure hiria. Eta, hori bezain garrantzitsua dena: hiriaren motor ekonomikoa bihurtuko du Illunbe; kirol eta kultura aldetik izango duen-erakargarritasuna eta zientzia- eta ezagutza-poloarekin batu eta Miramongo parke teknologikoaren hedapen gisa uztartuta".

Azkenik, Feijook zera nabarmendu du: "proiektuak aurkeztu dituzten estudiok egindako lana; kalitate tekniko eta arkitektoniko handikoak izan dira denak". Era berean, epaimahaiaren lana eskertu du, "proposamenen balorazioa egiteko orduan izan duten zorrotasunagatik eta profesionaltasunagatik, bai eta Donostia Kiroleko zerbitzu teknikoena ere, prozedura izapidetzeko egin duten ahaleginagatik".

Proiektua: bi arena, hainbat aukera

"Txalaparta" proiektuak Illunbe eremua ekipamendu estrategiko berri bihurtzea planteatzen du, Donostia dinamizatzeko eta urte osoan zehar jarduera jarraitua sendotzeko gai izango den hiri-, kirol- eta kultura-polo gisa.

Multzoa bi arena handiz osatuta egongo da –erabilera anitzekoa bata, eta kirol-erlorkoa bestea–, eta, entrenamendu- eta euskarri-espazioekin batera, sistema moldakor eta moldagarria osatzen dute. Bi arenak modu independentean zein koordinatuan funtzionatzeko diseinatuta daude, eta horrek aukera ematen du barrutia erabiltzeko aukerak biderkatzeko eta haren errendimendua eskala desberdinetan optimizatzeko. Antolaketa horrek ekitaldiak aldi berean egitea errazten du, eta askotariko programazioa bermatzen du: kirol-jarduerak, kultura-ikuskitzuna, kontzertuak, azokak eta beste formatu hibrido batzuk.

Erabilera anitzeko arena gunearen elementu nagusi gisa planteatzen da: 18.500 ikusle ingururentzako edukiera izango du eta askotariko moduan konfiguratzeko prestatuta egongo da, hala nola kontzertu jendetsuak, kirol-ekitaldiak edo kultura-topaketa handiak egiteko. Bestalde, kirol-arenak 3.380 ikuslerentzako edukiera izango du (eserita), eskala txikiagoko lehiaketetara egokiagoa izango da, eta, ondorioz, gunea egunerokoan maizago erabiliko da. Sistema dual horrek ekipamenduaren etengabeko funtzionamendua bermatzen du eta haren epe luzerako bideragarritasuna indartzen du.

Prentsa oharra

Nota de prensa



Diseinu arkitektonikoa

Arkitekturari dagokionez, proiektu hau inguratzaile garaikide eta teknologiko baten bidez gauzatzen da: guneari irudi hautemangarri eta izaera publikoarekin koherentea ematen dio. Azal horrek, funtzio teknikoak betetzeaz gain, identitate-elementu gisa ere funtzionatzen du, barne-jarduera kanporantz proiektatuz eta eraikina ikuskizunaren beraren hedapen bihurtuz. Ildo horretan, arkitekturak adierazkortasuna, eraginkortasuna eta egokitzeko gaitasuna konbinatzen ditu, eta gunearen hiri-presentzia berezia finkatzen du, betiere testuinguruarekin duen harremana galdu gabe.

Hiri-ikuspegitik, barrutiaren eta hiriaren arteko harremana berriro definitzen du proposamenak, kirol- eta kultura-bulebar berri bat sortuz, zeinak sarbideak antolatu eta ibilbideak antolatzen dituen. Eraikina ingurune hurbilarekin lotzen duen elementu egituratzaile gisa ulertzen da espazio publiko hori: oinezkoen mugikortasuna errazten du eta egunerokotasunean eremu jarraitua, irisgarria eta aktiboa sortzen du. Era horretan, proiektuak Illunbe eraldatzen du, eta herritarrentzako leku bihurtzen du, hurbileko jarduerekin elkarbizitza ahalbidetzeko eta ingurunearen garapen-dinamiketan integratzeko gai dena.

Gunearen antolamendu funtzionala efizientzia eta argitasun operatiboko irizpideen araberakoa da: zirkulazio-sistema bereziak ditu txertatuta, hainbat erabiltzaile –publikoa, kirolariak, teknikariak edo logistika– aldi berean interferentziarik gabe batera egon daitezten. Era berean, proposamenak ekitaldi handietara egokitutako azpiegitura logistikoa bat du, zamalanetarako espazioekin eta ibilgailu astunentzako sarbideekin, guneak edozein egoeratan behar bezala funtzionatzen duela bermatzeko.

Eraikina osatzeko, 250 plaza inguruko aparkaleku bat eta autobusentzako eremu espezifikoak daude, irisgarritasun egokia eta edukiera handien kudeaketa arina bermatzeko.

Espazioen malgutasuna

Malgutasuna da proiektuaren funtsezko beste printzipioetako bat. Harmaila mugikorrek eta konfigurazio aldakorrek sistemak erabiltzeak aukera ematen du espazioak premia desberdinetara egokitzeko; era horretan, programazio dinamikoa errazten da eta ikusleen zein antolatzaileen esperientzia optimizatzen da. Barne-eraldaketarako gaitasun horrek eraikinaren izaera multifuntzionala indartzen du, eta horrek agian uzten du ekitaldi garaikideen eredu berriei erantzuteko prest dagoen azpiegitura bat dela.

Proposamen jasagarria

“Txalaparta” proiektuaren alderdi garrantzitsuenetako bat jasagarritasuna eta berroneratze adimenduna dira. Egungo azpiegitura erabat eraitsi ordez, haren 10.000 metro koadro inguru mantentzearen aldeko apustua egiten du proiektu

Prentsa oharra

Nota de prensa



honek. Horri esker, esku-hartzearen ingurumen-inpaktua nabarmen murrizten da, bai eta proiektuaren kostu ekonomikoak eta hori gauzatzeko epeak ere. Berrerabiltzeko estrategia horrek, baliabideak optimizatzeari gain, gunearen erosotasun-, irisgarritasun-, teknologia- eta kalitate espazialeko baldintzak hobetzean kontzentratzen du inbertsioa.

Hurrengo faseak

Hemendik aurrera, enpresa adjudikaziodunak oinarrizko proiektua eta jarduera-proiektua idatzi beharko ditu, eta horretarako lau hilabeteko epea izango du. Lizentziak lortu ondoren, exekuzio-proiektua eta ustiapen-memoria aurkeztu beharko dira sei hilabeteko epean, obra-kontratua lizitatu aurreko pauso gisa. Lizitazio hori 2027ko erdialdean egin liteke, eta helburua 2028an adjudikatzea izango litzateke.